

Distirak beltza ikusten utz diezazula

Vol.I
Glaukoma.

Bonberenea Ekintzak.
Iraupena: 32'19".
Biniola + CDa: 10 euro.
CDa: 8 euro



TOLOSA bilgunea dute baina herri askotako lagunek osatzen dute Glaukoma. Taldearen debutak ilusionatuta nauka; ederra da. Iaz ezagutu nuen, Tolosaldeko musika talde gazte batzuek *Sputnik 11* izeneko bilduma kaleratu zutenean. Taldea txukuna iruditu zitzaidan orduan, baina ia oharkabean egin duten disko honetako kantuak erabat borobilak dira. Euskaraz zein gazteleraz abestutako piezatan, reggaea, raggamuffia eta rapa dira oinarri nagusia, baina

bada funky, jazz, latino eta rumba tantarik ere, bere tamaina justuan aberastera heldu direnak. Gipuzkoarrak dira taldekide guztiak, baina idatzitako hitl-ak entzunda, sinetsaraziko dizute lurralde beroagoetatik datozela; beraien burua azal zuri dun beltzat dute. Hitzetan ere maila ona erakutsi dute, ederto transmititzen dituzte hainbat giro, gai eta egoera. ■

www.glaukomaband.com

GLAUKOMA, Juantxo

«Ez ditugu atsegin klitxe eta estereotipoak, askotan hutsalak direlako»

“Errimen meategi, bertsoen etxea”. Etorri ona daukazu Juantxo. Non inspiratzen zara?

Gehienetan zaila egiten zait errimen meategira iristea eta batzuetan bere kasa dator. Idazten jartzea da kontua, batzuetan gauza baliagarriak ateratzen dira.

“Ladies & gentlemen” berdintasunaren aldeko kantu desberdina da, moralkeria gabe, kaleko mailan idatzitakoa...

Ikusten dugun zerbait da, edozein juergatan antzeman baitaiteke emakumearen aurka dagoen biolentzia estrukturala, gizartean dagoena.

“Izanaren zamak” bultzatzen gaitu talde bat egin eta barrukoa askatze-ra?

Bai, izanak zama handia har dezake eta talde batek lagundu dezake hori arintzen, baina barrena askatzeaz gain oso garrantzitsua da gauza baliagarriak esatea, konta-



tzea edo interpretatzea, pentsarazteko eta zerbait astintzeko balio dezaketenak.

Zer da “garden ikusten utzi nahi ez” duzuenak?

Gizartea da glaukomak jota dagoena eta garden ikusten ez duena. Ez dugu atentzioa behar den tokietan jartzen eta gauza distiratsu eta boteretsuei besterik ez diegu kasu egiten. Gutxitan agertzen dira telebistan hiri bateko periferiako zonaldeak. Musikan gauza bera gertatzen da estilo

minoritario edo periferikoekin.

Betiko lau musika taldeak dabilta bueltara, gehienon arreta eskuratzen dute; eta inguruan beste hainbat estilo, talde eta ekimen ere badaude.

Ez zarete “ez ganstak, ez rastak”. Ez duzue tri-buekin ezkondu nahi?

Ez gara gangstak eta ez gara rastak, Gipuzkoako hainbat herritako bost mutil gara,

gustuko dugun musika egiteko gogotsu. Ez ditugu atsegin zerbait musika estilotan ikusten ditugun klitxe eta estereotipoak, askotan hutsalak direlako.

Ezohiko sentitzen zarete musika eszenan?

Ez. Oso gustura aritu gara orain arteko kontzertuetan eta ez gara arraro sentitu, baina egia da rapa eta zerbait reggae mota faltan ikusten ditugula Euskal Herrian. ■

